

Ordizian, **2011ko uztailaren 21ean**, UDALBATZA elkartu da udaletxeko bilkura-aretoan **OHIKO** bilera egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

**BERTARATUAK:**

**BATZORDEBURUA:** Igor Eguren Izagirre jauna.

**BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:**

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edune Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	PNV taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	PNV taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	PNV taldea
Iñaki Bolinaga Arcelay jauna	PNV taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	PNV taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

**BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :**

**BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**ITZULTZAILEA:**

Izaskun Zubitur Iñarra andrea

**BERTARATUAK ETA EZIN ETORRIAK**

## **AZTERTUTAKO GAIAK**

### **EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:**

- 1.- 2011ko ekainaren 30eko ez-ohiko bilkura bereziaren akta onartzea.  
.....**3.orr.**
- 2.-San Joan HIE 22ko 30.5 lursailaren hasierako xehetasun azterketa behin betiko onartzea.  
.....**4.orr.**
- 3.- Kide Anitzeko Erakundeetako bileretara joateko zinegotziak izendatzea.  
.....**5.orr.**
- 4.- Trafikoa arautzeko Ordenantza aldatzea.  
.....**6.orr.**
- 5.- Borondatezko lankideentzako diru-laguntzak.  
.....**8.orr.**

### **PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:**

#### **GALDE-ESKEAK**

- Irailetik aurrera Udalak herritarrei helarazi nahi dien informazioa.  
.....**9.orr.**

### **GORABEHERAK**

#### **ORDUTEGIA:**

**HASIERA ORDUA: 19,00**

**BUKAERA ORDUA: 19,20**



Batzarrari hasiera eman ondoren eta gai zerrendako lehenengo puntuarekin hasi baino lehen, Alkate jaunak azaldu du 2011ko uztailaren 13ko osoko bilkurarako gaien batzordean gai-zerrendan puntu bat sartzearen aldeko erabakia hartu zela, hain zuzen ere, osoko bilkurak Goieki SAko Ordiziako ordezkariak izendatzeko puntua.

Hala ere, elkarte osatzen duten udalerrietako ordezkari buruzko akordioa lortzeko eskualde mailako bilerarik ez denez egin alderdi politikoen artean, gaia oraindik zintzilik dago eta horregatik ez da sartu ohiko bilkura honetako eguneko gai zerrendan.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako lehenengo puntuaren berri eman du:

### **1.- 2011ko ekainaren 30eko ez-ohiko bilkura bereziaren akta onartzea.**

#### Proposamena

#### **2011ko ekainaren 30ean ez-ohiko deialdian egindako Batzordearen akta-zirriborroa onartzea.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Idazkari and.

Adierazi du aktan 15. orrialdean 7. puntuan "Udal Talde eta Zinegotzien izendapenak" puntuan ez dela Alkate jaunak Santamaria jaunari esandakoa jaso, idazkariak berak ez zuelako argi ulertu esandakoa.

#### Santamaria jna.

Ez zaio argi geratu non dagoen erantzukizunaren eta ordainketaren arteko muga.

#### Alkate jn.

Berak Intsausti andreak azaldutako arrazoi bidetik erantzun ziola esan du. Zinegotzien izendapenetan erabili zen irizpidea eta Alkatearen izendapenean erabili zen irizpidea bera izan zen, alde batetik gaur egungo krisi ekonomikoak finkatzen duena eta beste aldetik bere alderdi politikoen jarrerak adierazten duena, eta horregatik jaitsi direla ordainsari horiek.

#### Bozketa

Aktan zuzenketa egin da.

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 10 (BILDU 7, EAJ/PNV 3)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 3 (2 EAJ/PNV, 1 PSE-EE (PSOE), Bolinaga, Garin eta Dubreuil jauna hurrenez hurren bilkura honetara ez etortzeagatik).

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako bigarren puntuaren berri eman du:

**2.-San Joan HIE 22ko 30.6 lursailaren hasierako xehetasun azterketa behin betiko onartzea.**

Proposamena

Arau Subsidiarioetako "San Joan" Hirigintza Interbentzio Eremuko a.30.6 lursailaren Xehetasun Azterketa onartzeko bideratu den espedientearen berri ematen da, Ikena 2001, S.L.-ak eskatuta eta CB2 Arquitectura S.L.P.k idatzia.

2011ko maiatzaren 18ko 489 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren hasierako onarpenarekin jendaurrera zabaldu zen legeak ezarritako epean eta moduan, Udaletxeko iragarki-taulan argitaratutako iragarki bidez, 2011ko maiatzaren 27ko 100 zenbakiko GAOn, eta 2011ko maiatzaren 25eko egunkarian, eta ez dute alegaziorik aurkeztu.

2011ko uztailaren 13ko Osoko Bilkurarako Gaien Batzordearen aldeko erabakia ikusita, ondorengo erabakia hartu du:

AKORDIO PROIEKTUA

**1.- Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetako "San Joan" 22 HIEko a.30.6. lursaileko Xehetasun Azterketa behin betiko onartzea.**

**2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin betiko onartu den akordioa, testu arauemaile osoa barne, eta Gipuzkoako Foru Aldundian jakinaraztea hamar eguneko epean, eta baita Xehetasun Azterketako lurralde eremuko sustatzaileari ere.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Xehetasun Azterketa bat dela azaldu du, lursailaren eraikin-profila jaitziko da eta sakonera handituko da, baimendutako bolumen eraikigarritik pasa gabe.

Horrekin batera garajeen sarrera eta irteerarekin zegoen arazoa konpontzen da.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ/PNV 4., PSE-EE(PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Judith Otegi andreak ez du bozkatu Xehetasun Azterketan interesduna delako.

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako hirugarren puntuaren berri eman du:

### **3.- Kide Anitzeko erakundeetara joateko zinegotziak izendatzea.**

#### Proposamena

2011ko ekainaren 30eko Osoko Bilkuran Alkate, Talde politiko eta zinegotzien izendapenak onartu ziren.

Zinegotziei dagokienez, kopuruak onartu ziren, nahiz eta erabakiaren xedapenaren 6. paragrafoak aipatu ordainketa Kide Anitzeko Organoetara joateak baldintzatzen zuen.

Paragrafo hori garatzeko asmoz, ondorengoa proposatzen da, Batzordearen oniritziarekin, 2011ko uztailaren 13an izango den Osoko Bilkurarako Gaien Batzordean aurkezteko,

#### ERABAKIA

- 1- Saileko Delegatuek, ezarritako ordezkari-tza kopurua bat baino gehiago bada ere, 650 euro kobratuko dituzte hilean. Hilero egingo den osoko bilkurara joaten ez bada 100 euro kenduko zaizkio.
- 2- Ordezkaritza duten zinegotziek 60 euro jasoko dituzte ondorengo kide anitzeko organoetara joanez gero:
  - Tokiko Gobernu Batzordea.
  - Gai arrunten Informazio edo kontrolerako Batzordea.
  - Osoko Bilkurarako Gaien Batzordea.
  - Partehartze orokorrera irekitako Informazio Batzordeak.

Hori guztia zinegotzi bakoitzak hilean gehienez 325 euroko mugarekin.

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Legeak dioenaren arabera, zinegotzien ordainsariei dagokien 2011ko ekainaren 30eko akordioa osatzea egokitzen dela azaldu du, ordainsari hauek kide anitzeko organoen asistentziara baldintzatuta.

Proposamena azaldu du.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 6 (EAJ/PNV 5, PSE-EE (PSOE) 1)

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako laugarren puntuaren berri eman du:

#### **4.- Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantza behin behinean onartzea.**

#### Proposamena

Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantza onartzeko tramitatu den espedientearen berri eman da.

Martxoaren 2ko 339/90 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Trafiko, Motorezko Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Lege berria eman izanak, zenbait aldaketa sartu beharra ekarri du. Aldaketa horietako batzuek, araua garai berrietara egokitu beharretik sortuak dira, eta beste batzuek berriz, egun indarrean dagoen legeriak sortutako eskaeren arabera gai garrantzitsu hau egokitu beharretik sortuak eta udalerriak bere gain hartu behar dituenak, izan ere, bere interesguneari eta, halaber, Udal Autonomiaren oinarritik bertatik eratorritako gaur egungo eskuduntza-esparruari eragiten baitiete zuzen-zuzenean.

Lege honek, bere arautze-ahalmena erabiliz, hiribideen erabilpenak arautzeko ahalmena aitortu zien udalerriei. Alabaina, praktikan, gatazka asko sortu ziren udal-ahalmen horren mugak zeintzuk ziren ulertzeko arlo askotan egindako ulermen-modu desberdinak sortu eta elkarren aurrez aurre jartzean, udal-arauak ez betetzean ezarritako neurri zigortzaileak erabiltzean batez ere. Martxoaren 24ko

5/1997 Legeak onetsitako berrikuntzak, segurtasun-gabeziak egoera hori konpondu egin zuen eta argi gelditu zen, Udalek, zirkulazioko ordenantza orokor bat onetsita, beren udalerriko trafiko eta aparkamendu-ordenamendua arau zezaketela eta neurri zigortzaileak ere har zitzaketela.

Orain gutxi sartu indarrean 18/2009 Legea azaroaren 23koa, Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legea aldatzen duenaren eta 339/90 Errege Dekretuaren 7.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Ordenantza hau eman da, udal-araudia indarrean den legediari egokitzeko eta, aldi berean, herri-bideetako ordena eta segurtasuna nahiz horien erabilpen egokiari dagozkion moduak eragiten dituzten arauak ere, arautze-helburu berorren barruan sartzeko helburuekin.

Trafiko Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Legeko 7 eta 38.4 artikuluek eta 7/85 TAOL (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea) legeko 25.2 b) artikulua ezartzen duenaren arabera, udalerririk badu herriko kaleetan ibilgailu eta pertsonen trafikoa antolatzen eskuduntza. Hala ere, eskuduntza hori dagozkion Ordenantza eginda gauzatzen da.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikulua arabera, Udaleko Osoko Bilkurari dagokio ordenantzak onartzeko eskumena.

Legearen 49 artikulua ezarritakoari jarraituz, Ordenantzak onartzeko ondorengo prozedura jarraituko da:

- a) Osoko Bilkuraren hasierako onarpena.
- b) Jendaurrera zabaltzea eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.
- c) Epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizun guztien ebazpena, eta ondoren osoko bilkurak behin betiko onartzea.

Erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztu ez bada, behin-behineko erabakia behin betiko erabakia izatera pasako da.

2011ko uztailaren 13ko Osoko Bilkurako Gaiaren Batzordearen aldeko irizpenarekin, honakoa onartzea proposatzen da:

## AKORDIO PROIEKTUA

**1.- Hiritar izaerako herri-bideen erabilera eta horietako trafikoa, zirkulazioa eta segurtasuna arautuko dituen udal-ordenantza behin-behinean onartzea.**

**2.- Ordenantza hori jendaurrean jarri beharko da 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan, eta interesatuta daudenen aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunei tartea eman, horiek guztiak Korporazioak ebatziko dituelarik. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke, beste erabakiren beharrik gabe.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Alkate jn.

Proposamena onartu behar izateko arrazoiak azaldu ditu.

#### Asenjo jn.

Aurreko ordenantza 2005ean onartutakoa zaharkituta geratu dela azaldu du, lege-aldaketa handi xamarrek egon direlako eta beraz, udal ordenantza aldaketa hauetara egokitu behar dela.

Aldaketa garrantzitsuenen laburpen bat egin du.

### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5., PSE-EE(PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako bosgarren puntuaren berri eman du:

### **5.- Borondatezko lankideentzako diru-laguntzak.**

#### Proposamena

Ipar-Hegoa kooperazio programetan parte hartzeagatik Ordiziako gazteei ematen zaizkien diru-laguntzak arautzen dituen araudia jarraituz eta 2011 urteko ekitaldiari dagokion deialdia egin ondoren,

Ondorengoa onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

**IÑIGO MUJIKA ONANDIA (Ordizia,1987) ordiziar kooperatzaile gazteari 1.200 euroko diru-laguntza ematea onartzea, kooperatzaile gisa GUATEMALAra egingo duen bidaia ordaintzeko.**

**IÑIGO MUJIKA Gaitasun Zentru baten eraikuntzan lanean ariko da, landa eremuan bertako biztanleriari giza zerbitzuak hobetzeko laguntza eskainiz. Lan hau, arkitektura ikasketen**



**amaierako proiektuaren barne egingo du. Proiektua honako erakundeek bultzatuko dute: APZOR, San Carloseko Unibertsitatea, Uspantan herrialdea eta ASF Galizia.**

Proposamena onartzeko gehiengoa: Soila.

#### Eztabaida.

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

#### Maiza and.

Diru-laguntza Ordiziako borondatezko lankide batentzako dela azaldu du, arkitektura ikasketak ditu eta ikasketa bukaerako proiektu bat burutuko du landa eremuan oinarritzko gizarte zerbitzuak hobetzeko zentro bat sortuz.

Proiektua Guatemalan burutuko du eta 1.200 €ko diru-laguntza jasoko du bidaia egiteko.

#### Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ/PNV 5., PSE-EE(PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzia: 0

**Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako seigarren puntuaren berri eman du:

#### **9.-Galde-eskeak.**

Alkate jaunak azaldu du irailetik aurrera Udalak herritarrei helarazi nahi dien informazioaren komunikazioa hobeto aztertu nahi dutela (beraien proiektuaren zutabe nagusia, herritarrak), hala ere, jakinarazi du udal aldizkari txiki bat banatu dutela etxeetan eta gaur egungo legealdiko epe motzean egindako lanen informazioa jasotzen dela.

Bestalde, aldizkarian bertan herritarrei deialdi bat egin diela jakinarazi du, herriko jaietan balkoietan ikurrina ipintzeko deialdia.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak egiaztatzen dut.

